

KULTURA DISKO FESTA JOSEINA ETXEBERRIAREKIN, URRIAREN 10EAN · GEHIGARRIA GAZTIA NAIZ BARREN  
KIROLA SAN PEDRORA TXIRRINDULARI IGOERA URRIAREN 12AN

ELGOIBARKO ASTEKARIA · 2003ko urriaren 10a/XI. urteko/460. zkia

# Barren

ASTEKARIA



KOKOEREN VIII. KOMIKI LEHIAKETAREN ERAKUSKETA

## *Irudimenaren eta fantasiaren artea*

"NAHI DUENAK ERAKUTSI, LEHENIK BEHAR DU IKASI" (esaera zaharra)



# GREIVIOEN GIDA

## AROSZTEGI-AK

### BIENA

Neurrira egindako lana  
Ermuaranbide, 16  
w 943 74 31 16

### ETXEKIT

Erreformak-proiektuak  
Antonio Arrillaga, z/g  
943 74 43 47

### GARCIA

Aluminioa eta PVCa  
P. Muguruza, 30  
u 943 74 32 38

### LODOSO

Leihoak  
Sigmako industrialdea  
Xixilion 2-2. pabilioia 3. zenb.  
271 943 74 34 90

### SORALUZE

Leihoak-Armairu enpotratuak  
Santa Ana, 8  
u 943 74 36 34

### ULAZIA

Aroztegia eta enbalajeak  
Santa Klara, 10  
21 943 74 05 47

### ZABALA

Etxeko erreformak-enbalajeak  
Deba kalea, 16  
u 943 74 03 96

## ITURGINTZA, GASA, KALE FAKZURA ETA KLIMATIZAZIOA

### ANGEL

Santa Ana, 5  
u 943 74 17 61  
u 689 04 92 06

### ONGI

Olaso Poligonoa, 15-68 pabilioa  
13- 943 74 28 80

### PAGOAGA

San Antolin, 13  
u 943 74 02 79

### TELLABIDE

Azpilgoeta, 19 MENDARO  
zr 943 75 50 62  
13- 607 75 50 62

### ZALDUA

Urasandi, 26  
u 943 74 05 30

### ZUBIZARRETA

Ubitarte, 5  
u 943 74 07 89  
u 608 14 30 40

## PINTURAK

### BIOK DEKORAZIOA

Santa Klara, 11 behe  
943 74 15 52  
u 606 43 11 19-20

### IPINTZA

Foruen enparantza, 4  
mr 943 74 04 40  
u 607 74 04 40

## ELEKTRIZITATEA

### ARAMAR

Morkaiko, 1  
T 943 74 12 80

### AZPELETA

San Frantzisko, 51  
Kr 943 74 12 38

### JOSEBA

Pedro Muguruza, 29  
Ir 943 74 09 02  
u 659 93 49 64

### URZELAI

Santa Ana, 12-14  
u 943 74 13 76

## IGELTSERITZA

### ANTONIO MARKEZ

Urasandi, 24  
u 943 74 34 18

### ASKETA

Osio, 7 DEBA  
629 34 43 89

### JOSE LUIS MENDEZ

Urasandi, 24  
17 943 74 29 87  
zr 679 19 77 47

## ISOLAMENDUAK

### GLAS CONTROL S.L.

Inpermeabilizazioak  
Olaso 27, 47. pabilioia  
Tr 943 74 30 94

# 40 URTE 40 ISTORIO

## LXP

ELGOIBARKO IZARRA  
KULTUR ELKARTEA



## 30 Dendetan ere GUREAN BAI

2002ko urtarrilean merkataritza euskalduntzeko pertsianak jaso ziren Elgoibarren. "Euskaraz saldu nahi dugu baina ez daukagu euskara saltzeko" leloa abiapuntu hartuta, herriko 131 dendak baietz esan zioten euskarari. Kasu honetan ere benetan gustura geratu gara dendariak erakutsitako jarrerarekin. 180 dendatan aurkeztu genuen proiektua eta, esan bezala, 131 dendatan eman zioten baietza hitzarmenari. Dendari bakoitzak bere konpromisoak hartzen dihardu; denen egoera eta borondatea ez da berdina, eta bakoitzak bere neurriko konpromiso maila hitzartu du. Gure lana dendariei konpromiso hauek betetzeko laguntza eskaintzea izango da.

Gurean Bai-Merkataritza da Elgoibarko Izarrak, Udalaren laguntzarekin, martxan jarri duen azken proiektua. Proiektu estrategikoa eta garrantzitsua da guretzat. Zergatik? Herri osoa inplikatzeko den sektore bat delako merkataritza. Gehiago edo gutxiago, denok mugitzen gara herriko dendetan eta denok gara parte dendetako hizkuntza portaeretan. Beraz, herriko merkataritzan euskara nagusitzea lortzen badugu, pauso garrantzitsua emango dugu herriko giroa euskalduntzeko.

Proiektuko teknikari lanetan diharduen Nagore Dorronsororen esanetan, "NAGO, IDATZI MOTZ-MOTZ DENDARIEK NOLA HARTU DUTEN PROIEKTUA ETA ZEIN DEN BERAIEN JARRERA".

Esan bezala, proiektua berria da, oraindik asentatzen ari da. Ea oinarri sendoak jartzeko gauza garen eta Elgoibarko dendak herri euskaldunaren eskaparate izatea lortzen dugun.

Imanol Larrañaga

# iritzia



## Zorionaren formula

Zorionari buruz munduko 65 herrialdetan egin den inkestaren emaitzak dauzkatz esku artean. Nigeriarrak omen dira zorionsuenak eta errumaniarrak, berriz, zoritarrekoenak. Mexiko, Venezuela, Salvador edota Puerto Ricoko jendea ere nahiko pozik bizi da, ez ordea errusiarrak edo armeniarrek. Komunikabideetan zabalduko datuak dira, kuriosoak benetan. Inkestak, orokorrean, ez dira serioegi hartu behar, badakit. Gauza jakina da zein galdera egin diren eta nori egin zaizkion ikusi behar dela, eta gehienetan inkestaren egileek nahi dituzten emaitzak jasotzen direla. Baina zoriona tartean egonda, nik behintzat kosk egin diot amuari eta adi-adi entzun eta irakurri ditut emaitzok.

Antza denez, gauza materialak desiratzea traba handia da zorionsu izateko, eta lagun hurkoa baino ederragoa eta dotoreagoa izateko nahiak ere ez omen du laguntzen. Lagunak izatea eta horren garrantziaz jabetzea, berriz, zorionerako bidean aurrerapausoa ematea ei da. Tamalez, genetikak ere badu zerikusirik zoriontasunaren kontuan ere, eta jende tristearen oinordeko dena, ba izorra dadila. Inkestagileek onartu dutenez, herrialde bakoitzean ezberdinak dira jendea poztu edo tristetzen dituzten gauzak. Eta jende asko gosez hiltzen den herrialdeetako biztanleak zorionsuenak direla ikusita, inkesta tripa bete ondoren egingo zutela uste dut.

Beno, eta emaitza guztiak apuntatu ostean, horra hor funtsezko galdera: Eta zer da zorionsu izatea? Pozik bizitzea? Konforme egotea? Egunero jatea? Buruak agintzen duena egitea? Bihotzak diona egitea? Inkestei kasurik ez egitea?

Montse Arregi

Kexak .....	5
motz MOtZ .....	8
gehigarria .....	13
kiROIak .....	20
aGenda .....	

## DANOBATEKO HIZTEGI TEKNIKOA DELA ETA

Poztekoa da aurreko idatzi batean hemen bertan P. Beristainek argitaratutakoa: Danobat aspalditik dabilela euskararen alde, gaur ere horrelaxe diharduela eta, aurrerantzean ere, bide horrexi utsiko diola. Jardun horren emaitza omen da argitaratu berri duten hiztegi teknikoaren. Nire aurreko idatzi batek ez zuen, jakina, ondo dagoen ezer kritikatu nahi. Are gutxiago euskararen aldeko ekimenik. Soilik kortesiak eskatzen zuen apurra erreklamatzeko, alegia, 1976an geure lana eta xoxak zahutuz egin genuen lan aurrekariaren aipamena bada ere egitea. Besterik ez. Orduan, orain ez bezala, Danobaten ekimena baino, pribatua izan baitzen lantxo hura. Ez dugu nahi dominarik, horretatik gehiegi ikusiak gara-eta, zoritxarrez. Soilik adanismoak gabeko edukazio ona, lehenago aritutakoentzat aitortza eta esker ona, besterik ez genuen eskatzen.

Bidenabar esan dezadan, pozgarria izango dela orain arte gaztelania hutsez ikusi ahal izan ditugun DANOBAT 50 AÑOS DE HISTORIA liburuaren borradoreak, euskaraz ere badirela egiaztatzea.

Felix Etxeberria

## ELGOIBAR ELGOIBARTARRONTZAT

Denbora kontua zen. Aurreko larunbateko tren geltokiko istripuaz ari naiz. Arraroena, ordea, lehenago gertatu ez izana da. Askotan galdetzen diot neure buruari zergatik ez diren okerragoak gertatzen Elgoibarren dagoen 'mobida' ikusita. Larunbat askotan egon izan dira Elgoibarren eta inguruetan auto istripuak, gazteak hilda. Fijatu al zarete nola egoten den N-634 errepidea, gasolindegitik Madalako zubiraino, bazterrak kotxez beteta? Asfalto gainean aparkatzen dituzte kotxeak, eta gazteak errepide erditik ibiltzen dira, eta nola ibili gainera!! Mozkor-mozkor eginda, drogatuta... Orain dela bi larunbat, Madalako zubitik irteera nindoala, Guass parean, 14-15 urteko bi gazte errepide erdira bota ziren kotxearekin pasatzera nindoan uanean. Sekulako frenazioa eman nuen gazteak ez zapaltzeko. Eta orain, errotondako obrak direla-eta, egoerak okerrera egin du. Argi guztiak kendu dituzte eta gauzez ez da ezer ere ikusten. Nola da posible leku horretan ehunka gazte elkartzen dituen 'ruta'ko dantzaleku bat egotea? Zeren zain gaude neurriak hartzeko?

Lasai bizi nahi dugu, bereziki larunbat arratsaldetan. Bizikalitate nahi dugu. Larunbatetan gure umeekin Madalako parkean egon nahi dugu, San Frantzisko kalean ibili, tabernetan sartu, trago bat lasai hartu. Elgoibar elgoibartarrontzat!!!

M.A.A.  
15.372.872

# Urruzunoren begi ezkutua

## Hegazkinean



Leiho ondoan noa, hegala baino pare bat errenkada atzerago, hirukoa eta ezkerrekoa den nire honetan bakarrik; inguruan ditudan gehientsuenak bezalaxe, lekuen erdia baino gehiago hutsik baitago. Hala ere, bada hegazkina gogoz gainekatzeko duen bidai-lagun bat: eguzkia. Ezkerretara begiratzen dudanero hor dakusat irribarretsu edo burlati (ez nuke asmatzen jakingo), horizontea erakutsiz eta zerua zerutik bereiztuz. Bere azpitik, izozturik diruditen laino grisaxkak; kotoizko duna amaigabe bat osatzen dutenak, eta bere gainetik, are amaigabeagoa den zeru urdin-urdina, buruz behera jarritako itsaso tropikal gardena balitz bezala: bare, isil, eta bero.

Baina ekia beherantza doa astiro-astiro, argitasunak berarekin ihes egiten du, eta desagertzen ari den neurrian, eskenak erabateko aldaketa jasaten du: hotzaren sentsazioa nagusitzen da eta, itsaso tropikal gardena, bare eta isil jarraitu arren, kantauriar kostaldeko arratsa bihurtu da; kantauriar kostaldeko arratsa, udaberriko egun argitsu baten azkenetan.

Unai Villena

# BaRRen ARGITARATZAILERIA

Nafarroa enparantza. 2  
20870 ELGOIBAR  
943 74 41 12  
Publizitatea:  
943 74 37 04  
Faxa: 943 74 37 04  
E-posta:  
[barren@topagunea.com](mailto:barren@topagunea.com)  
Helbide informatikoa:  
[www.topagunea.com/barren](http://www.topagunea.com/barren)  
ARGITARATZAILERIA  
Elgoibarko Izarra

LAGUNTZAILERIA Elgoibarko Udala KOORDINATZAILERIA Ainhoa Andonegii ZUZENDARIA ASier Orbea GEHIGARRIEN ARDURADUNA Maite Unarte PUBLIZITATEA Amaia Erkizia MAKETATZAILERIA Jaione Unanue GEPENTZIA Jon Peli Uriguen KOLABORATZAILERIA Jasone Osoro, Ainhoa Lodoso, Nestor Fuente, Pello Mendizabal, Edurne Bilbao, Gotzon Arrieta, Lorea Perez de Albeniz, Jokin Martinez, Montse Arregi, Juanito Gorostiza, Kokoe K.E. eta Urruzuno L.T. AZALEKO ESAERA ZAHARRA Gotzon Garateren liburutik INPRIMATEGIA Gertu Koop. E. TIRADA 4.130 ale LEGE GORDAILUA 55-1.038/92 ISSN 1139-1855

**Ei**  
91 ELGOIBARKO IZARRA  
1111.7011 151.6 "18A

Elgoibarko Udalak, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak  
eta F071.1 Aldundiak diruz lagundutako aldizkaria.



**zits** kutxa  
zun esker

**1DANOBAT**  
HEFRAMENTA

**GOITI**  
ORUPO DANOBAT

ESTARTA

## num

- Emakume batek esan digunez, festetako banderinak kentzen dituztenean sokak etxebizitzetatik zintzilik lagatzen dituzte: "Festak iristen direnean kale guztiak banderinez apaintzen dituzte. Oso polita eta txukuna lagatzen dute dena, baina kentzerako orduan ez dute gauza bera egiten. Sokak moztu eta ganoraz kendu beharrean, etxebizitzetatik zintzilikatuta lagatzen dituzte. Banderinak jartzerakoan egiten duten lan txukun bera egin dezatela kentzerakoan ere".



- Herriko gazte talde batek Plaza Txikiko komun publikoak beti itxita egoten direla azaldu digu: "Koadrilako lokala daukagu ingurune horretan, eta komunera joaten garen bakoitzean itxita aurkitzen dugu. Zertarako daude hor sekula irekitzen ez badituzte? Orduategi konkretu batean zabaltzen badituzte, jar dezatela ordutegia atean!".



- Herritar batek esan digunez, Xixilion kalean dauden zabor kontenedoreak oso leku txarrean daude: "Udalak badaki hemen daukagun arazoa zein den, eta ez dute konpontzeko ezer egiten. Sortzen den zikinkeria argazkiak bidali dizkiegu, eta ez zaie inporta. Arazorik sortzen ez badute, zergatik ez dituzte udaletxe aurrean jartzen? Lanera joatean ingurune honetan arratoi mordoa ikusten ditugu, usaina jasanezina da, eta aparkamentua zikinkeriaz beteta egoten da beti. Kontenedoreentzako leku hobea bilatu dezatela".

- Herritar batek udaltzainak txalotu nahi ditu, joan zen igandean etxeko atarekin arazoak zituztenean, berehala joan zitzaizkiolako laguntzera: "Igande eguerdian ezin genuen etxeko atea ireki. Zarraila gaizki zegoen, eta ez zen giltza bere lekuan sartzen. Igandea zenez, ez genekien nora deitu eta Udaltzaingora jo genuen. Berehala etorri ziren bi udaltzain, eta ordu laurdenean konpondu genuen arazoa. Eskerrak eman nahi dizkiet".





## Kontsumo ohiturak hobetzeko programa jarri du martxan Debegesak Debabarrenean

Ingurumena zaindu eta etxeko gastuak gutxitzea da programaren helburua

**D**ebegesaren eskutik, **D**atozen hilabeteetan jarriko da martxan GAP (Global Accion Program) egitasmo pilotua Debabarrenean. Hilabete eta erdiz bailarako etxe guztiek programaren berri, eta bertan parte hartzeko gonbidapena jasoko dute. Egitasmoan parte hartzen duten familiek lau hilabetez, gutxiago gastatzeko eta ingurumena zaintzeko aholku praktikoak biltzen dituzten lau eskuliburu jasoko dituzte etxean. Honekin batera, galdera sorta bat bidaliko zaie, egin dituzten aurrerapenak ebaluatzen laguntzeko. Programa bukatutakoan, parte hartu duen etxea ekologikoa dela egiaztatzen duen Nazio Batuen ziurtagiria eskuratuko dute partehartzaileek. Gutxienez 1000 familiak



GAP programaren aurkezpenean ateratako argazkia.

parte hartzea nahi du Debegesak. Interesatuak etxeko etxe banatuko diren fitxak bete, edo [www.ingurumena.net/gap](http://www.ingurumena.net/gap) helbidean eman dezakete izena.

### Programaren helburua

GAP programaren helburua ingurumena zaindu eta aldi berean etxeko

gastuak gutxitzea da. Lehengaien kontsumoa eta kutsadura gutxitu daitezke GAP programari esker, eta era berean, bizi kalitatea hobetzen lagunduko digu. Etxetik bertatik hasita, ingurumena hobetzeko gauza asko egin daitezke, eta horretan lagunduko digu GAP programak, ura, energia, garraioa eta erosketak murrizten, hain zuzen ere. Programan parte hartzen dutenek, etxeko zabor kantitatea %20an gutxitu dezakete, ur kontsumoa eta energia %15ean eta CO2aren produkzioa %10ean. GAP programaren muina bere filosofiak laburbiltzen du: "geure etxea txukuntzen dugunean izango gara munduaren arazo larriak konpontzeko moduan".

### GAP PROGRAMAN PARTE HARTZEKO TXARTELA (Debabarrenako etxetarako)

Deba, Eibar, Elgoibar, Errnu, Mallabi, Mendaro, Mutriku eta Soraluze

#### INGURUMENA ZAINDUZ ETXEO ingurumena GASTUAK GUTXITU NAHI DITUZU?

Bai, 4 GAP eskuliburuak, DOAN, jaso nahi ditut

Izena:

Abizenak:

Helbidea:

Zenbakia:  Atea/Solairua/Eskailera:

Posta-kodea:  Hertia:

Telefonoa

e-mail:

Ekaki teartel hau, gutunazal batean sartu, seeua ord, eta helbide humetara bidali, GAP-ELISKADI. 3108 posta-kutxa. 48080 Bilbo Norberaren datuak isilpekoak dira eta LCIRTAD legea betee erabiltzen dira

**Barren**  
Aldizkariaren laguntza

### Fabrikazio Mekanikoaren Kualifikazio Berrien Garapenerako Lan Taldea IMHn kokatzen da

Javier Lopezek, lantaldeko buruak, eta Josemi Oskozek, idazkari teknikoak, KLT (Kualifikazioetarako Lan Taldea) zuzenduko dute, Estatu mailan Fabrikazio Mekanikoaren Kualifikazioak garatzeko. Zuzendaritza hau Eusko Jaurlearitza Hezkuntza Sailak, Espainiako Hezkuntza, Kultura eta Kiroletako Ministerioari proposatutakoa da.

KLT lantaldeak IMHn du bere egoitza eta bertan Fabrikazio Mekanikoaren arloko enpresetako hamaika Jakitun Teknologikok (JT) eta familia profesionaleko hiru Hezkuntza Jakitunek (HJ) hartzen dute parte.

Estatu mailan Kualifikazioetako Sistemaren erreferentzia izanik, KLTk Hezkuntza Kultura eta Kiroletarako Ministerioarentzat dihardu lanean kualifikazioen katalogoa eta dagokion katalogo modularra eratzeko.

## Jende asko bildu da Kondia enpresak antolatutako jardunaldi teknikoetan

**E**lgoibarko Kondia enpresak, jardunaldi teknikoak antolatu zituen joan zen urriaren letik 3ra, eta bisitari ugari izan ditu. Grupo Delteco S.A. enpresarekin elkarlanean, bi orduko saioak antolatu zituzten, merkatuan dauden aplikazio berrienak Kondiako ekoizpen prozesuari nola egokitu zaizkion erakusteko.

Kondiak eskaintzen dituen produktuei buruzko informazio zehatza jaso zuten gonbidatuek. Era berean, abiadura eta zehaztasun handiko P60-V2 makinaren aurkezpen berezia, eta HC-400 Mekanizazio Zentro Horizontal berritzailearen lehenbiziko erakusketa ikusteko aukera izan zuten. Zentro berri hau



YASDA enpresa ekoizle japoniarrarekin lortutako akordio teknologikoaren fruitua da, eta esan beharra dago, enpresa hau ultraespazio alorrean aitzindaria dela mundu mailan. Makina berri hau Milaneko EMO azokan aurkeztuko dute ofizialki urriaren azken astean.

## Txankakuaren Folklore Jaialdiko zozketa

Txankakua Merkatari Elkarteak lau erosketa-txeke zozketatu zituen Nazioarteko Folklore Jaialdian. Hala ere, bi irabazle besterik ez dira agertu; Itziar Ajuria eta Mertxe Lopez. Bakoitzak 60 euroko erosketa-txekea jasoko du. Zorionak!

## San Migel jaietako zozketa

San Migel jaietan eginiko zozketako zenbaki saritua 0730 izan da. Irabazleak 15 egun izango ditu zenbakia aurkeztu, eta tokatu zaion txekorra jasotzeko. Zenbaki saritua agertu ezean, erreserbakoak (9.016) jasoko du saria.

## Ama Birjinari Salbea abestuz amaitu ziren Errosario kaleko jaiak

Joan zen asteburuan ospatu ziren Errosario kaleko jaiak. Urriaren 3an, ostiralean hasi, eta asteartera arte luzatu ziren jaiak. Antolatzaileek ekitaldi desberdinak antolatu zituzten. Ostiralean, Gorriti eta bere animalien ikuskizuna izan zen, eta arrakasta handia izan zuen gaztetxoaren artean. Gauean, 62 lagun elkartu ziren Kultur Etxean egin zen afarian. Baltzola Anaien emanaldiarekin, giro oso onean afaldu zutela kontatu digute antolatzaileek.

Urriaren 7an, asteartean, Errosario kaleko hildakoen omenezko meza ospatu zen, eta Ama Birjinari Salbea abestu ostean amaitu ziren jaiak. Salbea amaitu zenean, Errosario kaleko merkatariak 3 erosketa txeke zozketatu zituzten. Lehenengoa 120 eurokoa, bigarrena 60koa eta azkena 30 eurokoa. Irabazleak Errosario kaleko dendetan gastatu beharko dute dirua. Zenbaki sarituak: 1. saria 30.883 (erreserba 30.110), 2. saria 30.282 (erreserba 30.109) eta 3. saria 30.572 (erreserba 30.351).



## Merkatu Plazako dendariak bi afari zozketatu dituzte



Merkatu Plazako dendariak bi bikoterentzako afariak zozketatu dituzte hilabete honetan. Mila Astigarraga eta Rosalia Torres izan dira irabazleak, eta nahi duten lagunarekin afaldu ahal izango dute Gabi jatetxean. Datorren hilean 60 euroko lau erosketa txeke zozketatuko dituzte.


## Urriaren 13tik aurrera KZgunea arratsaldez bakarrik irekiko dute

KZgunea arratsaldez bakarrik irekiko ditu ateak datorren urriaren 13tik aurrera. Hala ere, eskaintza zabala dauka: hilabete honetan IT KZgunea izeneko 20 orduko bi ikastaro eskainiko dira. Erabiltzaileek sarean nabigatzen, korreo elektronikoa erabiltzen, informazioa bilatzen, txateatzen eta foroetan parte hartzen ikasiko dute, besteak beste. Lehenengo ikastaroa urriaren 13tik 24ra izango da, arratsaldeko 16:00etatik 18:00etara, eta bigarrena, urriaren 20tik azaroaren 7ra, arratsaldeko 18:00etatik 20:00etara. Honekin batera, nagusientzako ikastaroak ere izango dira, eta orain arte bezala, 18 urtetik gorako guztientzat interneten dohainik nabigatzeko gela mantendu egingo da.

## Valladolideko Jesus Maria Agudok irabazi du Elgoibarko VIII. Komiki Lehiaketa

Bestalde, "Barrak, Birrak eta Barreak" liburua argitaratu du Kokoek

aguna de Dueroko (Valladolid) Jesus Maria Agudok jasoko ditu Elgoibarko VIII. Komiki Lehiaketaren sari nagusiari dagozkion 500 euroak, bera izan baita "El misterioso de Mr. Juanma caso es" izeneko komikiari esker lehen saria eskuratu duena. Bigarren sariko 300 euroak Bartzelona aldera joan dira, Jose Maria Delgadoen eskuetara hain zuzen ere. Hirugarren saria, berriz, Tomas Cogollo madrildarrak lortu du. 200 euroko dirusaria lortu du honek. Azkenik, Joseba Larretxea irundarrak irabazi du euskarazko lan onenari ematen zaion 120 euroko akzesita. 18 urteko komikilari honek duela 2 urte lortutako saria errepikatu du. Epaimahaia osatu dutenak: Ander Sanchez, David Garrido, Iban Barrenetxea, Iñaki Raigoso eta Joseba Otaegi izan dira.



### "Barrak, Birrak eta Barreak" liburua salgai

Gaurtik hasita urriaren 19ra bitartean izango dira ikusgai Komiki Lehiaketara aurkeztu diren 33 lanak Kultur Etxeko erakusketa gelan. Honez gain, Antxon Alvarezek (gidoigilea) eta Iban Barrenetxeak (marrazkilaria) argitaratu berri duten liburua eskuratu ahal izango da bertan. Liburu honek, 1998 eta 2003 urteen

bitartean BARREN aldizkariak "Barrak, Birrak eta Barreak" izenburupean argitaratu dituen tira komikoen selekzio bat biltzen du. BARRENeko ale honetan 224. komiki tira argitaratu dugu, baina egileek 70 onenak bildu dituzte 36 orrialdeko liburuan. Herriko tabernetan, **dendetan eta BARRENen** bertan eskura ditzakezue liburuok euro baten truke. Tirek elkarrekin lotura bat dutela eta denak batera ikusteko gogoia zutela azaldu digute Ibanek eta Antxonek, "lau urteko lanaren aukeraketa egin dugu, baina ez da horren zaila izan. Astero-astero tira bat ateratzea izaten da zailena. Egindakoen artetik aukeraketa egitea errazagoa izan da.

Pertsonaia asko pasa dira Joxeren barra aurretik, zein baino zein kuriosoagoak. Ukitu umoretsuz Antxonek liburuan idatzi duen hitzaurreak azaltzen du komiki tiraren sormen prozesu guztia.

## Joseina Etxeberriarekin Disko Festa izango da bihar, hilak 11, Madalan

Gaueko 22:30ean hasita, bi ordu luzeko emanaldia izango da



**E**lgoibarko Udal Euskara Batzordeak antolatuta, Disko Festa izango da bihar, gaueko 22:30ean Madalako parkean. Joseina Etxeberria Euskadi Gaztea irrati esatariak zuzenduko du emanaldia, eta bertara hurbiltzen direnek ez dute aspertzeko paradarik izango.

Azken urteetan plaza-giroa gutxitzen hasita zegoela-eta, tabernetako musika kalera ateratzeko saiakera egin zuen Euskadi Gaztea irrati emisorak 2002. urtean Disko Festa antolatuz.

Euskadi Gazteak modan jarritako Disko Festan Joseina Etxeberria DJa da protagonista nagusia, eta bi ordu luzez musikako azken arrakastak entzun eta

dantzatu ahal izango dira bere eskutik. Emanaldi horietan, bertan biltzen diren gazte guztien gustuak asetzen saiatzen da Joseina Etxeberria, eta euskal musikaren aldeko diskriminazio positiboa egiten ahalegintzen da. Euskal Herriko musika, estatukoa eta nazioartekoa uztartzen ditu emanaldietan.

Estetikoki oso modernoa den eskenatokian bi neskak lagunduko diote Joseina Etxeberriari Madalako parkea dantzan jartzen.

Disko Festa martxan jarri zenetik, Euskal Herriko hainbat herritan izan da eta arrakasta handia lortu du. Bihar Elgoibarren txanda da, beraz, ez ahaztu zita.



## Sustral Colina eta Amets Arzalluz bertsolariek girotu zuten Elgoibarko Izarra Idaz Lehiaketaren sari banaketa

**E**lgoibarko Izarra Idaz Lehiaketako sariak jaso zituzten 15 gaztek pasa den urriaren 2an, Kultur Etxean. Sari banaketako lehen zatian Etxegina Bertso Paper Lehiaketako irabazleak atera ziren sariak jasotzera eta bide batez saritutako bertsoak abestu zituzten jendaurrean. Etorkizun handiko bertsolariak izan daitezkeela frogatu



ostean, gaur egungo bertsolari gazte onenatariko bik: Sustrai Colinak eta Amets Arzalluzek, bertso saio dibertigarria eskaini zuten. Uxue Alberdi elgoibartarra aritu zen gai jartzaile lanetan eta neska gazte biren ikuspuntutik bertsoak abestera behartu zituen. Iparraldekoek enbitea onartu eta primeran moldatu ziren izaera berrira. Hauen ateraldiek algara bat baino gehiago sorrarazi zuten. Bertso saioaren ostean idazlanen ataleko sariak banatu

zituzten. Txikienek Olentzerori idatzitako gutunak irakurri zituzten eta nagusienek, berriz, maitasun gutunak irakurri eta sarituak izan ziren ipuinen nondik norakoak azaldu zituzten. Urruzuno Literatur Taldeko kideak aritu dira epaile lanetan. Bertso paperak epaitzeko ardura, berriz, **German Meabek eta Irati Agirreazaldegik** izan dute. Sariak Laiotz aldizkarian bilduko dituzte eta guztiok izango dugu irakurtzeko aukera.

### SARITUAK

**Marraskia eta gutuna Olentzerori**

**LHko 3. eta 4. mailak**

1. saria: Andrea Arce
2. saria: Josu Atxa
3. saria: Julen Ibarluzea

**Maitasun gutuna**

**LHko 5. eta 6. mailak**

1. saria: Gorane Gonzalez
2. saria: Leire Oteiza

**DBHko 1. eta 2. mailak**

1. saria: Leire Mendikute
  2. saria: Jon Ander Cerron
- ipuina: "Hasi naiz hanclitzen"*

**DBHko 3. eta 4. mailak**

1. saria: Antton Alberdi
2. saria: Ane Odria

*ipuina: "Fashion vicfim bat naiz"*

**LOGSEko 1. eta 2. mailak**

1. saria: Amaia Gorrotxategi
2. saria: Izaskun Loiola

*Ipuina: "Kantzertu ahaztezin hartan gertatutakoak"*

**ETXEGINA BERTSO-PAPER LEHIAKETA**

**LHko 5. eta 6. mailak**

1. saria: Mikel Olaizola
2. saria: Danel Mendibil

**DBHko 1. eta 2. mailak**

1. saria: Gotzon Zulaika
2. saria: Danele Sarriugarte

## "Kutsidazu bidea, Ixabel" antzezlanaren izango da Herriko Antzokian datorren ostiralean, urriaren 17an

**G**orringo Antzerki Taldeak "Kutsidazu bidea, Ixabel" obra taularatu du datorren ostiralean, urriaren 17an, Herriko Antzokian. Bi saio eskainiko dituzte, iluntzeko 20:30ean bata, eta gaueko 22:15ean bestea. Sarrerak salgai daude dagoeneko, eta goizez eros daitezke Udaleko Kultura Zerbitzuan.

Joxean Sagastizabalek 1994an arrakasta handiz plazaratutako eleberria antzezlan bihurtu du Gorringo Taldeak. Umerezko nobela da, eta oso harrera ona izan zuen; 31 ediziotan, 60.000 aletik gora saldu zituen. Euskaltegian euskara eskolak jaso eta gero, hizkuntza biziarekin topo egin nahian, Tolosa aldeko baserri batera doan Juan Martin gaztearen ibilerak kontatzen dira. Istorioak zerikusi handia



du hizkera kontuekin, eta baserrira doan Juan Martin euskara ikaslea berehala konturatuko da etxe hartako lagunei ez diela ezertxo ere ulertzen, Ixabel gazteari izan ezik. Juan Martin eta Ixabelen arteko harremana izango da antzezlaneko ardatzetako bat.

Aktoreak

**Iñaki Agirrezabal, Ixabel Agirresarobe, Egoitz Lasa, Ainere Tolosa, Egoitz Lasa eta Sorginen Laratza** programan lan egiten duen Anjel Alkain aktore ezagunak, dozena bat pertsonaia antzeztuko dituzte, **Anartz Zuazuaren** zuzendaritzapean.

Nagore Aranburu aktoreak egin du eleberriaren egokitzeapena antzerkirako, Joxean Sagastizabal berarekin elkarlanean. Liburuko pasarte batzuk kendu, eta beste batzuk, berriak sortu dituzte. "Kutsidazu bidea, Ixabel" liburuko pertsonaiak hezur eta haragizko bihurtu, eta Elgoibarko oholza gainera salto egingo dute, beraz, datorren astean.

## EUROPAKO 9 HERRIALDETAN EGINDAKO INKESTA BATEN ARABERA, JENDEAK NAHIAGO DITU BIZITZEKO HERRI TXIKIAK, HIRI HANDIAK BAINO

### ZER NAHIAGO DUZU BIZITZEKO; HERRI TXIKIAK ALA HIRI HANDIAK?



**MARIA ASUN LOPEZ**  
43 urte, etxeoandrea

Herri txikia. Lehen Bermeon bizi nintzen, eta gustura nengoen han ere. Hiri handiak erosketak egiteko, edo egun pasa joateko gustatzen zaizkit, baina bizitzeko nahiago dut herri txikia.

**MARIA JESUS INTXAUSTI**  
42 urte, etxeoandrea

Herri txikixa, dudarik gabe. Umiak askoz hobeto moldatzen dia, eskolara jun, eta euren gauzak eitzeko. Donostian bizi izan naiz, eta Elgoibarrera egokitzea kostatu zitzaidan, baina oin oso gustura bizi naiz hemen.



**AITOR AYARZA**  
39 urte, autonomoa

Eibarren bizi naiz, eta nahiko handia da, baina oso gustura nago. Emaztea elgoibartarra denez, beharbada hona etorriko gara bizitzera, eta ez zait inporta. Nahiago dut herri txikietan bizitzea hiriburuetan baino.

**OLAIA REVERT**  
23 urte, erizaina

Mendarokua naiz, eta herri txikixak **nahixo ditxut**. Lasaitxasun haundixaua dao. Hiri haudixetatik liburutegixak edo kultur ekintzak botatzen ditxut faltan, baina kotxian mobitxia ez da batere kostatzen.



**JOSE VAZQUEZ**  
68 urte, jubilatua

Herri txikietan askoz gustorago bizi naiz, hiri handietan baino. Bilbon, Ourensean, edo Lugo bezalako hirietan bizitakoa naiz, baina herriak askoz lasaiagoak dira. Hiriburuan bizitzekotan, kanpoaldean biziko nintzateke.

**ROKE SALEGI**  
47 urte, muntatzailea

Momentuko biharren arabera, herri txikixan edo hiri haundixan biziko nintzake. Ikasketak eitzeko, hiriburuak aukera gehixo ematen ditxu, baina lana herri txiki baten bilau ezkeru, bertan gerauko nintzake.



IKASTARO TEORIKO INTENTSIBOAK EUSKARAZ eta GAZTELANIAZ.  
ZIKLOMOTORREKO LIZENTZIA ASTEBETEAN. AZTERKETARIK GABE!  
IZENA EMATEAN 7oi OEKO BEHERAPENA

00owteit teonlia 16 01,te dete  
autt — afeleeta teoulaa cate dete

eta

**ARRAÑAGA**  
A U T O E S K O L A  
Tel: 943 74 10 11



# Gazti BARRRen



Zapatuak Elgoibarren:  
Zelako mobida!

2003ko urtarraren 15ean, A. Ortega/Agv. ZAKI





## MARIVI AGIRREGOMEZKORTA, alkatea "NirE nahia nonEtan lanE, gaztEEn jokabidEa aldatzEa

**TRENAREN EZBEHARRAREN ONDOREN, HAMA KA ARGAZKILARI ETA TELEBISTAKATE IKUSI DITUGU AZKENENGO LARUNBATEAN ELGOIBARREN. KEZKA ZABALDU DA HERRITARRAREN ARTEAN ETA ESAN DAITEKE HERRIAREN MUGAK ERE GAINDITU DITUELA.**

**(,101.1 FREIRE**

**49 URTE**

**Z**apatu arratsaldea eta alkoholaren kontsumoa erabat lotuta daozela iruditzen jata. Urte asko daramatzagu zapatutan San Frantzisko kaletik ganoraz pasa ezinda.

Normala dan bezela kezkaute egoten naiz alaba etxera bueltatu arte, baina poliki-poliki ohitzen jun naiz, izan ere, konfiantza dakat berarengan. Badakit poteatzen ibiltzen dala, baina danak ibili gera beraien bezela. Bestalde, nahia det alaba Elgoibarren ibiltzia kanpuan ibiltzia baino, horrek errepidan ibiltziak dakarren arriskua kentzen dabalako. Nere uestetan, ezin zaie tabernariei, ezta Udalari arazoaren irtenbidea exigitu, denon artean topatu behar da soluzioa.

Trenaren gertaeran, alkoholak eragin handia eduki zabala ueste det. Izan ere, horrenbeste gazte edaten ibili ondoren, bultzakadak errezagot gertatzen dira.

Ezin ditugu begiak itxi eta ezer gertatu izan ez haitz bezala jarraitu, edozein egunetan gure seme-alabak egoera berdinean egon daitezke eta.

**Zeintzuk izaten dira larunbat arratsaldeko egoeraren ondorioz Udalera iristen diren kekek?**

Zarata, zikinkeria eta herriko hainbat elementuren apurketak izaten dira gehien jasotzen ditugun kekek.

**Komun publikoak jarri dira, udaltzain gehiago dago kalean... neurri asko hartu dituzue azken boladan?**

Bai, hala da. Neurri desberdinak hartu ditugu, eta

aurrerantzean hauen balorazioa egin beharko dugu.

**Askok diote udaltzainen lana ez dela nahikoa, zer esango zenieke zuk horiei?**

Nire uestez, ondo egiten dute udaltzainek euren lana.

**Udaltzain kopurua handitu beharko litzateke? Edo Er-tzainak jarri?**

Ez dugu ueste neurri horiek hartzea egokia izango denik, indarrez inposatzea ez da bidea.

**Trenaren gertaeran zein da erruduna?**

Bidaiariaren jarrera desegokia.

**Nola ziurtatzen diezu herritarrei ez dela berriro gertatuko? Zein irtenbide dau-de?**

Gure esku ez dagoen gauzarik ezin diegu herritarrei ziurtatu.





## ari garEn guztiona

311

**LARUNBATEAN NORMALEAN BAINO KANPC TAR GUTXIAGO ZEGOEN HERRIAN ETA BALI-TEKE ISTRIPUAK ZERESANA IZATEA BISITA-RIEN JETSIERAN. IZAN ERE, UDALAK DEI BAT LUZATU DIE ERANTZUNKIZUNA DAUKATEN SEKTOREEI. HAU GUZTIAGATIK, ETA BERE IRI-TZIA GARRANTZIZKOA IRUDITU ZAIGULAKO, HERRIKO AGINTARIAREKIN BILDU GARA.**

Dei bat luzatu diezu erantzukizuna dauk aten sektoreei, ezta?

Bai, eta momentuz jarrera bikaina erakutsi dute.

**"Orokorrean herriko sektore batentzat ere ez da onuragarria zapatuetan gertatzen dena"**

Elgoibarko Udalak al du ardua guztia?

Ez, ezta gutxiagorik ere.

Gero eta jende gehiago biltzen da Elgoibarren larunbat arratsaldetan, onuragarria al da herriarentzat?

Orokorrean herriko sektore ba-

tentzat ere ez da onuragarria.

Treanean zauritutakoen egoeragatik kezkatu zarela entzun dugu, gurasoei zer esaten zaie egoera honetan?

Nire babes guztia eskaini diet, eta beren nahigabeen laguntzen diet. Bestalde, beraiek nahi dutenerako nire laguntza eskaini diet.

Biltzen den jende kopururako garraio zerbitzu egokia dagoela deritzozu?

Garraioak ez daude honelako fenomeno bati aurre egiteko prestaturik, baina beharrezkoak eta egokiak direla deritzot.

Zer aldatuko da Elgoibarren datorren larunbat arratsaldetan?

Nire nahia eta honetan lanean ari garen agente sozial nahia gazteen jokabidea aldatzea da.

**" Udaltzain kopurua handitzea edo ertzainak jartzea ez da konponbidea, indarrez inposatzea ez da bidea"**



**YOLANDA MUNIN )**

**19 URTE**

**Z**

er dian larunbatak neretzat? Uff! Aste osua egoten naiz larunbata

iristeko egunak kontatzen! Estresa kendu, lagunak ikusi eta juerga!

14 urtekin hasi nintzan tabernetara sartzen eta sekula ez diate karnetik eskatu, kuadrilan altuena izan naizelako beti. Tabernetara sartu bihar ginanian eulixak bezela gerturatzen zian lagunak, 3 edo 4 eskolta nitxuala ematen zaban!

Zapatuetan bakarrik ateratzen naiz ni, baina kanpoko jendiak juergan jarraitzen du Elgoibartik joaten diazenian. Bilbo eta Andoain inguruko jendia ezagutu izan det. 22 urteko inor ez dezu botelloia itxen ikusiko, gaztienak eta kanpokuak izaten diaz batez ere .

Neri komeni zait Elgoibarren juerga egotia, kanpora juteko beharrik ez dakatelako eta horrela gurasuak lasaiago daozeleko. Arratsaldeko 18:00etan atera eta gustora baldin banau tabernak itxi arte ibiltzen naiz kalian, hau da, goizaldeko 04:00ak arte. Gauza bat argi daukat, kaliak TXIKI PARK bihuru diazela edo gero eta zaharragoa naizela ni!

Larunbata ailegatzeko desiatzen egongo naiz ni beti!


# Iarunbat AT

Alkohola,  
kalEa leporaino, Edalontzi  
apurtuak nonahi, kEzka  
aurpEgia duten gaztE koadrila  
bat ambulatorio kanpoan...

AzkEn urteetan, Elgoibarko  
kalEak gaztEz bEtE zaizkigu  
Iarunbat arratsaldEtan.  
Ehunka dira astE osoko  
EstrEsa kEndu nahian gurE  
hErrira datozenak.  
TabErnariEn onErako,  
udaltzainEn kaltErako.  
NEgozioa? Arazoa?  
Ikuspuntu zEharo  
dEsbErdinak.

HEmEn daukazuE  
arratsaldEtan guK..

.1.F.0.7:17F.r1 krr+n9inf7717



16:23

Eibar, Ermua, Mallabia ingurutik datorren trena iritsi da geltokira. Trenak juerga gogoarekin datozen 14-20 urteko gazteak dakartza. Guztiak egoera berdinean iritsiko ote dira etxera?

16:24

Geltoki ka,poa.  
Gazteak dira  
errepidearen jaun eta  
jabe, autoak kontuz  
ibili behar dira inol  
ez harrapatzeko.  
Oraindik goizegi da  
tabernetara joateko.  
ez ordea  
supermerkatuetan  
"litroak" erosteko.



16:45

Supermerkatuetako atean egarria eta hau kentzeko edariak biltzen dira. Adin txikikoek, 18 urte dituzten ezagunak dituzte, beraz arazori ez. ote oia hastear dago.








**17:15**

**TXIN TXIN!** 2 euro nahikoa dira 2 litro kalimotxo erosteko. Tabernetan prezio berdinean kalimotxo bakarra lor daiteke.



**17:15**

Edozein lekutan topa ditzakegu litroak edaten dauden gazteak. San Roken, Barren parean... Hauek Madalako etxe berrietan aurkitu ditugu. Botilak zakarrontzira botako al dituzte amaitzean?



**17:15**

19:00ak arte ez dira tabernak betetzen, beraz 2 ordu dituzte lagun artean alkohol guztia zurrupatzeko

**18:00**

Ohh oh...udaltzainen bisita iritsi da. ezkutatu botilak!



**19:30**

Alkohola, bakalau musika, juergarako gogoia."Ikusi dezu Mikel? !Uff!! C6mo est6!". Gaur ni zurekin, bihar zu harekin..



**21:00**

Iluntzen ari da. Elgoibartarrak oraindik kalean. Kanpotarrak erlojuari begira. Izan ere, laster tren hartu behar dute beraien herrietara bueltatzeko. **DATORREN ASTERA ARTE!!!**





# K.O. Etilikoa



MILA PICAZA

ELGOIBARKO GURUTZE GORRIKO ZUZENDARIA

*Nork ez du larunbat arratsalde baten anbulatziaren bat entzun? Guztioi etortzen zaigu burura irudi berbera: zutik eutsi ezinda dagoen gazte bat Gurutze Gorrikoen inguruan. 200 intoxikazio baino gehiago gertatzen dira urtero Elgoibarren; hori dela eta, Gurutze Gorrikoengana hurbildu gara .pertonan gertaera hauen berri eman diezaguten.*

## "Gutxitan gertatzen dira horrelako kasuak, baina gertatzen dira astero bizitzeko den egoerarako"

**Nola prestatzen zarete larunbat baterako?**

Ez da ezer berezirik egiten. Dotazio normal bat egoten da, ezin delako gertatu behar dena aurreikusirik.

**ko iasotzen dituzte?**

Bataz-beste 5 larunbatero. Batean 8 gertatu daitezke, beste batean 2. Deitzen dugutenean ateratzen gara, hau da, ez gara kalean bueltak ematen ibiltzen. Izan ere, Donostiako koordinadoreak irteera baimentzen duenean bakarrik atera gaitzake.

**Tr Zer nolako gertaerei aurre egin behar da? (liezue?)**

Intoxikazio etilikoak edo espezifikatu gabek izaten dira ohikoenak. Etilikoak oso erraz antzematen dira alkoholak daukan kiratsarengatik. Besteak, pastila, kokaina... eraginpean gertatzen dira eta begi bistaz zaila da zehatz-mehatz zerk eragin duen jakitea. Larri dagoen

gaztearen lagunek, beti 2 kalimotxo besterik hartu ez dituela esan ohi dute.

**Nolako da gurasoen erreakzioa?**

Ez dakigu, ospitala arduratzen baita gurasoei deitzeaz. Gaztearen lehenengo erreakzioa "mesedez, gurasoei ez deitu" izaten da. Nire iritziz, datu pertsonalak askotan gaizki ematen dizkigute, gurasoak gertatu denaz ohar ez daitezten.

**Zein adin-tarte da konfliktiboena?**

13-14 urtekoak atenditzen ditugu askotan. Nik ez dakit nondik ateratzen duten dirua. Atenditzen hasi eta umeak bezala negar egiten dute! Normala umeak diru-eta! Lehen 16 urteko jendea oso gaztea iruditzen zitzagun, eta begira orain!

**Zein da erruduna?**

Udalari arazoak eskuetatik ihes egin dio. Arazo edukazionala ere bada, belaunaldi batetik bestera dena aldatu baita... seme-alabak zigortzetik, gehiegi mimatzera pasatuz. Guztiok dugu errua.

**Nolako izaten da larrituaren lagunen jarrera?**

Denetarik! Baina nik bizi izan ditudan gertaera larrienetan gazte intoxikatuak ez zeukan lagunik inguruan. Batez ere, gazteenen kasuan, gurasoak harrapatuko dituzten beldur izaten direlako.

**Nola bizi izan zenuten trenean gertatutakoa?**

Ez da lehenengo aldia izan. Behin, neska batek leihotik burua atera eta poste batek jo zuen. Gazteak trenbidera erori izan dira trenak harrapatu ez baditu ere. Horregatik guretzat gertaera bat gehiago izan da, larria, baina beste bat. Gertatu arte jendeak ez ditu begiak zabalitzen. Gutxitan gertatzen dira horrelakoak, geltokian astero bizitzen den egoerarako. Geltokira igotzean kotxeek izugarriko maniobrak egin behar izaten dituzte gazteak ez harrapatzeko! Zerbait gertatu arte, gizarteak ez du erantzuten.



KOKOLE 1008

Ander Sanchez



# LarunbatEan... ElgoibarrEn

"Elgoibar aldera bai? Sekula ez zarela joan?... 16.23an iristen gara geltokira. Ondoko dendan litro batzuk erosi eta denak Madalako etxe berrietara. Han lasai-lasai litroak edan eta gero tabernetara! Zurito batzuk... kalimotxoren bat... txupitoak... ETORRI!! 10etako trenean itzuliko gara-eta!"  
Yera eta Bea. Azpeitiarra bata, zarautzarra bestea. Biek 19 urte dituzte. On-do begiratu argazkiak! Seguru gaude Elgoibarko kaleetan topatuko dituzuela juergan!



ko

txoa dastatzen?

15 urte nituenetik.

**Zergatik elgoibar?**

Alde batetik, nahiko gertu dagoelako eta bestetik, ambientea gustatzen zaidalako! Bestela ez nintzan jungo!

**thartik joatean bukatzen al da juerga?**

Bai zera!!! Azpeitira joaten gara gabean!

**Larunbat arratsaldetako zerbait aldatzeko aukera izango bazenu?**

Autobus konbinazioak. Orain Pesako zerbitzua kendu digute eta etortzeko nahiz bueltatzeko arazak izaten ditugu.

**Tabernetan ala dendan erosten dituzue edariak?**

Tabernetan ibiltzeko ohitura daukagu. Batez ere, gaztetxoena, 14-15 urtekoak dira litroak erosten dituztenak, seguruenez merkego mozkortzen direlako.

**Erokeria gehiago egiten al dira zurea ez den herri batean?**

Nik berdina egiten dut Azpeitian eta Elgoibarren, baina garbi dago gaztetxoena asko aldatzen direla gurasoak aurrean ez daudenean. 14 urteko ume bat zeharo mozkorra ikustea ez da hain arraroa.

**zareneko plana?**

Seiak aldean elgobarrera iritsi. Hiru bat ordu tabernetan ibili eta berderatitako trena hartu bueltan, gero juerga zarautzen jarraitzeko. **Nolako jendea etortzen da zarautzik?**

14-15 urteko gazteak batez ere. 20 urteko jendea ere ikusi daiteke, baina ez horrenbeste.

**Zer aldatuko zenuke gure herriatik?**

Anbientea izugarria da, oso gustora ibiltzen naiz, baina tren konbinazio gehiago jarriko nituzke, gure kasuan, adibidez, 9:23tako trena leporaino joaten da-eta.

**Gurasoek zer iritzi dute?**

Nahiago dute ni herrian gelditzea, baina larunbat arratsaldetan ezer ez dagoenez, ohitzen joan dira.

**Adin gss Aenean nola moldatzen zineten edari alkoholduak lortzeko?**

Edariak dendetan erosteko beti dago 18 urte bete dituen ezagunen bat..dendetan normalean karneta eskatzen dizute..arazo gehiago dago.. baina tabernetan behin sartu ezkeror, ez dizute alkohola galarazten. Sartzea da kontua..kuadrilako altuenaren ondoan sartu behar!!



**UF KE BAJON!**

- Uf ke bajon!!! Ke klabo!!!
- Zelan Enekokin?
- Badakizu, super ondo, pote hartzuk egon ginan hartzen, baina harrapau naban un pedo!! Badakizu aste guztia zain berakin egoteko eta gero kaka!!! Buelata bat ematera jun ginanian, neri dak bueltak ematen zizkidan, pela bota arte. Azkenian etxera jun bihar izan nintzan.
- Eta bera zelan? Entzun dot edaten badozu ez dala altxatzen!!
- Egixa da, ni ez nitzan ezertaz enterau, ez dakit pitudo zauan ala ez, ez genduan ezer egin, ze kriston pedua nakan!!! Eta zu?

**W**  
**1:1**  
**rei**

**1. 1**  
- Ni guay, eibartar batzukin amaitu naban, super ondo, gaizki gaur eta etxian, fatal!!! Nere ama moskeatzen ari da, hasi da esaten astero kontu berdina daukagula, asteburuan lo gitxi eta gero kriston bajoia izaten dotela... ez dakit, gauzak okertzen ari dira.

- Egixa, astero berdina! Baina!!!

**Til#**  
**CL.**  
**0**  
Askotan jai giroan sexua, drogak eta rock and roll-a lotzen dira, eta gaur egun berdin jarraitzen dogu sexua, drogak eta beste mota batetako musika lotzen.

Gaizki edo ondo dago? Argi dago gure kultura hau bete egiten dela, bai gazteen artean, baita helduen artean ere.

**W**  
**UI**  
Harremanen ikuspegitik argi dago sexua eta drogak ez direla bikote onegiak, nahiz eta askotan laguntzen duten harremanak izaten. Orain ez daukagu espaziorik honi heltzeko baina honi buruz ausnarketa sakon bat egitea proposatzen dizuet:

- Gazteen mundua ez al da helduen munduaren erreflexu bat?
- Norberaren askatasuna ez al da amaitzen bestearena hasten den lekuan?...

*Bihtzik Sexologia Zerbitzua (Asteleheta 17:00-20:00)  
Gazte Informazio Gunea. Kultur Elxea.  
Bigarren solairuan. Tel 943 74 14 61.  
E-maila: biluzikzerbitzua@yahoo.es*

larunbatEko mobidarEn bEstE ikuspuntu oso dEsbErdin bat daukatE tabErnariEk. Ostalaritzatik bizi dirEnEz, kalEak gaztEz bEtEtzEa onuragarria da bEraiEn nEgozioEntzat. lanbroako arduradunarEkin aritu gara eta botElloiaz, apurkEtez... galdEtu diogu.

## Agustin Alonso

**"Nere gaztE dEnboran baso bat apurtzil yndunian gorri-gorri jarri Eta EzkutatzEn saiatzEn ginan. Orain muturrEn parian itxen dizutF"**



"16-17 urte badiaz Elgoibar modan jarri zanetik cta garbi dao ostalaritzari oso ondo etortzen zaiola zapatu arratsaldetako mobida hau. Hala ere, orain bizi deguna ezin da lehengoarekin konparatu. Jaitsiera nabarmen bat egon da botelloiaren eraginez. Lehen jendea, 17:00etan hasten zan behekaldean tragoetan, orain berriz, 19:30-20:00ak arte ez da animatzen. Egixa da goiko eta beheko aldearen artean ezberdintasun handiak daudela... Oraiko, Truk, Landa parean gazteenak biltzen dira, 14-15 urtekoak, eta "el trihl.gulo de las Bermudas" ematen du horrek!! San Frantzizko kaletik pasatziak beldurra ematen du! Umeen gurasoak non daoz? Edukazioak zeresan

handixa dauka. Lehen 16-17 urteko jendia ikusten zan mozkorra, baina orain 14 urteko umeak, cta gainera dana apurtzen dabe.

Nere gazte denboran baso bat apurtzen gendunian gorri-gorri jarri eta ezkutatzEn saiatzen ginan. Orain muturren parian itxen dizute.

Nik onartzen det taberna inguruetan bizi dan jendiantzako ez dala erreza: gaztiekin portaletan itxen dabe txiza, pila bat baso apurtu daoz portal inguruetan... baina jendia dabilen lekuan burrunbadia dao. Guk taberna barruan gertatzen dana kontrolatzia-kin nahikua dakagu.

Askotan esan digute jartzen degun musika estiloa aldatu ezkeru, arazo

gutxiago egongo ziala. Baina eskari- eskaintzaren legearekin funtzionatzen degu guk. Bakalauak diru gehiago ematen du eta gu hemendik bizi gera.

Taberna barruan, komuna da arazo gehixen ematen ditxuna. Bestalde, edalontzi pila bat apurtzen diaz, baina gure tabernan jende zaharragoa ibiltzen danez instalazioetan ez da apurketa handirik gertatzen.

Gertatu dan guztixa ez da guretzat publizitate ona. Gu saiatzen gera herrixan dirua uzten: kirol taldeak patrozinatuz edo kirol ekintzetan.

Beraz, guretzat ere onuragarria da arazo gutxi egotia larunbat arratsaldeko mobida honekin, irabazi handixaguk aterako ditxugu-eta"



iteg\***I TXARTELA**

**Par-  
kia**

**Matrikulo  
6 euro**

gl\***TXARTELA**

**Argazkia  
NAN.  
6 euro**

**gazte  
informazioa**



**Argazkia  
NAN.  
lan kontratuaren  
fragagiria  
8 euro**

**fiterpetxeen gido  
solgcti 7,80 euroton**

(Europa, Rfrika, Rrnerika, Rsia)

**TXARTELA**

**TXARTELA**

**GAZTEA (14<25 urte)  
NAN.  
5 euro  
Gazte Txartelarekin 2,5 euro**

**HEILDUA (25<)  
NAN.  
11 euro**

**FAMILJAKOR  
NAN.  
22 euro**

**TALDEKOA  
Partaideen zerrendo  
Estatutuen kopict  
15 euro  
Dohainik EJko elkorteen portaideak**



# Haurrentzako

# ipuin bilduma



**1** Nemesioren itzala  
Pako Aristi  
Jokin Larrea

**2** Zuk-Zuk jaunaren alfabeto berria  
Bernardo Atxaga  
IVtikel Valmerde

**3** Zazpigarrena eta azkena  
Patxi Zubizarreta  
Jokin Mitxelena

**4** Amona basoan galdu zenekoa  
Arantxa Iturbe  
Elena Odriozola

**5** ez noa berriz Lourdesera  
Joxemari Iturralde  
Iñaki Martiarena, "Mattin"

**6** Marina  
Mariasun Landa  
Asun Balzola

**7** Graaki  
Anjel Lertxundi  
Antton Olariaga

**8** Mixi marrau  
Jesus Mari Olaizola, "Txiliku"  
Jon Zabaleta

**9** Omar dendaria  
Harkaitz Cano  
Antton OLariaga

**10** Txori kantariak poeta hegalaria  
Hainbat poetaren testuak  
Elena Odriozolaren poema grafikoa

Ipuin guztiak gordetzeko,  
ZUMETAk ilustratutako  
kutxa hau opari

Urriaren **11**tik aurrera  
asteburu oro ipuin bat



LAGUNTZAILEAK

iCb

Bizkaiko Foru Aldundia  
Deputación Foral de Bizkaia

**11**  
Biz11a

Glipuztionito Forto %Illoondin  
Giutle tabaluale Haremarttago Departarouse

ERAGILEA



Euskaldunok behar dugun **berria**

## Futbola, 2003/2004 denboraldia Elgolbar Elkarteko taldeen aurkezpena



### Infantilak (Ohorezko maila)

Tente, ezkerretik eskumara:

Unai Zulaika (entrenatzailea), Aitor Arrese, Josua Lizundia, Iñigo Sanchez, Mikel Hidalgo, Danel Mendibil, Javier Salazar, Jorge Martinez, Unai Cabo, Jon Belaustegi, Endika Etxaniz, Asier Badiola eta Jose Ignacio Ortiz de Urbina (entrenatzailea).

Makurtuta, ezkerretik hasita:

Adrian Chico, Patxi Larrea, Mikel Arosa, Kevin Arrizabalaga, Julen Guenetxea, Ander Leon, Aritz Arribillaga, Josu Rodriguez, Borja Ortiz de Urbina, Javier Fernandez, Alexander Ruiz, Ruben Irigoien eta Iñigo Perez.

### Jubenilak

Tente, ezkerretik eskumara:

Juan Martin (delegatua), Mikel Ruiz, Juan Antonio Martin, Iñigo Irazabalbeitia, Unai Mujika, Eneko Aduriz, Andoni Etxabe, Ander Almenara, Haritz Calvo, Andoni Armabarrena eta Xabi Alonso.

Makurtuta, ezkerretik hasita:

Osel Sanchez, Breixo Conde, Iban Murua, Iban Conde, Mikel de Pablo, Egoitz Rodriguez eta Unai Gasteain.


Argazkian falta dira:

Iker Arrillaga eta Antton Ecenarro.



### ESKERTZA

2003ko irailaren 17an, 80 urte zituela hil zen  
**VALENTIN LARAÑAGA OSE**Sen sendiak,  
bihotzez **ESKERTZEN** ditu jasotako doluminak,  
hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.





## Pilarika Egunean jokatu da San Pedrorra Txirrindulari Igoera

**J**ulian San Juanen oriomenez Elgoibarko Lagun Taldeak urtero antolatzen duen Zikloturista kategoriako San Pedrorra Txirrindulari Igoeraren 12. edizioa domeka honetan, urriaren 12an, jokatu da. Lasterketako partaideak eguerdiko 12:00etan aterako dira Plaza Handitik. Iaz 50 txirrindularik amaitu zuten proba eta Iñigo Larizek igoerako errekorra hautsi zuen, Jose Mari Fernandez "Suso"ren errekorra 29 segundutan hobetuz. Ulma-Cegasa afizionatu mailako taldeko txirrindulariak 13 minutu eta 21 segundutan laga zuen marka berria. Aurten, gainera, 3. postua



Iortu zuen Larizek Elgoibarko Etxaniz Memorialean duela hilabete pasatxo. Beraz, parte hartzen badu, bera izango da faborito nagusia eta sasoiak galdu ez badu marka hobetzeko asmoarekin aterako da.

## Kirol Patronatuak Spinning-eko irakasleak behar ditu

Elgoibarko Udal Kirol Patronatuak antolatzen dituen Spinning ikastaroek oso harrera ona izan dute herrian. Momentu honetan 9 talde daude abian, guztira 115 pertsona, baina hala ere beste hogeita zortzi lagun lekurik gabe daude, leku bat libre geratzeko zain. Talde gehiago

osatzeko asmoz, baina irakasleen beharra ikusirik, Kirol Patronatuak dei egiten die IVEF ikasten daudenei, lizentziatuei edota spinning-eko monitore titulua ateratzea nahi dutenei Kirol Patronatuko bulegoetara hurbildu daitezten irakasleen taldea handitu ahal izateko.

## EMAITZAK

### Futbola

Pedrusko 1 - Eibartarrak 0 (1. erreg.)  
**Haundi 6** - Aloria Mendi 1 (Pref.)  
 Seg ura 0 - Elgoibar 4 (1. erreg.)  
 Bergara 1 - Elgoibar 2 (Jub.)  
 Soraluze 1 - Elgoibar 7 (Kad.)  
 Real Union 1 - Elgoibar 1 (Inf.)  
 Elgoibar 1 - Anaitasuna 3 (Neskak)  
 Neskak F-8 0 - Zumaiako 4 (Neskak)

### Esku pilota

**Gipuzkoako Txapelketa**  
 Murumendi 22 - Lagunak 10 (Kad.)  
 Eibar 10 - Lagunak 22 (Kad.)  
 Goierri 22 - Lagunak 4 (Nag.)  
 San Esteban 22 - Lagunak 15 (Nag.)

### Eskubaloia

Pagoaga Elg. 14 - Ehariadea 16 (Kad. nesk.)  
 Escolapios 26 - Tecnomeca Elg. 15 (Kad. mut.)  
 Cometel Elg. 21 - Ehariadea 20 (Jub. nesk.)  
 Escolapios 26 - Pneumax Elg. 16 (Jub. mut.)  
 Urduliz 31 - Tecnifuelle Elg. 21 (Sen. mut.)

## AGENDA

### Futbola, Mintxetar

#### Zapatua, 11

11:30 Elgoibar - Urola (Kad.)  
 16:30 Elgoibar - Gazteak (1. erreg.)

#### Domekia, 12

10:15 Elgoibar - Lengokoak (Int.)  
 12:00 Elgoibar - Mondragon (Jub.)

### Esku pilota, Ikastolan

#### Barixakua, 10

21:15 Lagunak B - Andazpe (Kad.)  
 21:45 Lagunak B - Soraluze  
 22:15 Lagunak B - Zumaiako  
 22:45 Lagunak - Aretxabaleta

### Eskubaloia, Kiroldegian

#### Zapatua, 11

16:30 Tecnomeca Elg. - Askartza (Kad. mut.)  
 18:00 Pneumax Elg. - Askartza (Jub. mut.)


## THOSNA jarriko dogu Madalan

9:00etatik aurrera



**L**  
**Gonbidatuta zaudete danok!**

*Elgoibarko Izarra Kultur Elkartea*



**iIEKMMOSM**

Errosario, 30  
 Tel: 943 74 02 84 Elgoibar

- \* IDAZMAKINEN SALMENTA
- ETA KONPONKETA
- \* MULTIKOPISTAK
- \* FOTOKOPIADORAK
- \* PLANOEN BIRREGILEAK
- \* ERLOJU INDUSTRIALAK
- \* MARRAZKETA MATERIALA
- \* INFORMATIKA
- \* FAX

*-c''' 410SE/p04(ttuoai*  
**(Txema)**

**Mota guztietako pintura eta enpapelatuak. Zoluak, moketak, sintasola, kortxoak, etab. jartzen dugu.**

San Bartolome, 28-1 ezk • Tel: 943 74 12 55 • Mobila: 629 44 23 14

## P Langai

Euskal Lan Zerbitzua

Urola Erdiko enpresak **mekanikoa** behar du. **Erref. 110093/1**

Urola Erdiko enpresak **administrazioa** behar du. **Erref. 110083/3**

Donostialdeko enpresak **mediku bisitzailea** behar du. **Erref. 110086/3**

Donostialdeko enpresak **3 monitore** behar ditu. **Erref. 109904/1**

Gasteizko enpresak **kalitate arduraduna** behar du. **Erref. 110055/2**

Durangoaldeko aldi baterako enpresak **kontrolatzailea** behar du. **Erref. 109954/3**

Durangoaldeko enpresak **informatikaria** behar du. **Erref. 110330/1**

Durangoaldeko enpresak **tronpeta irakaslea** behar du. **Erref. 110288/1**

Durangoaldeko enpresak **administraria** behar du. **Erref. 110172/2**

Durangoaldeko enpresak **kalitate kontrolerako teknikaria** behar du. **Erref. 110336/1**

Hautagai moduan sartzea eskatu nahi baduzu 901222901 telefonora deitu edo 'Langai'-k Elgoibarren dituen zentru laguntzaile hauek batera deitu: Elgoibarko Institutua (Peio Juoristi) 943 74 80 19 edo IMH (Nora Raman) 943 74 41 32 telefonora.

## Lana

### ESKAERA

• Emakumea etxeko lanak edo garbiketarako egiteko prest. Egun solteak. v. **943 74 22 01**

♦ Emakumea etxeko lanak edo garbiketarako egin, umeak zaindu edo ostalaritzan lan egiteko prest. • **615 71 34 40 (Mercedes)**

• Mutila kamarero lanak egiteko prest. a **615 71 34 40 (Pedro)**

• Emakumea nagusiak zaintzeko edo garbiketara lanak egiteko prest. Asteburuetan ere bai. s. **626 91 49 04**

Neska, umeak edo nagusiak zaindu edo etxeko lanak egiteko prest. Baita dendan lan egiteko. **cr 943 74 20 50/679 23 76 11 (Maria)**

• Neska gaztea edozein lan egiteko prest. v **665 20 18 24 (Ainhoa)**

♦ Neska euskalduna igande eta jai egunetan gaixoak eta pertsona nagusiak zaintzeko prest. v **616533796**

♦ Neska gaztea asteburuetan lan egiteko prest. tr **943 74 07 99**

• Emakumea goizez nagusiak zaintzeko edo garbiketara lanak egiteko prest. Esperientziaduna. 12 **609 409 606 (Sol)**

♦ Emakumea goizez nagusiak zaintzeko edo garbiketara lanak egiteko prest. a **660 69 53 03 (Marta)**

♦ Neska euskalduna umeak zaintzeko prest. tr **943 74 30 56**

\*Neska gazteak edozein lan egiteko prest. Euskaraz badakigu, langileak gara, eta oso arduratsua. Tr **669 65 28 28**

♦ Emakumea etxeko lanak egiteko prest. a **653 71 53 92**

\*Mutila garbiketara lanak egin, kartelak pegatu edo buzoneo lanak egiteko prest. • **943 74 44 63 (Andres)**

♦ Erizain laguntzailea nagusiak zaintzeko prest. Esperientziaduna. Tr **943 74 37 60/678 43 76 33**

### ESKAINTZA

• Igeltsero lanak egiteko mutil gaztea behar da. Esperientzia baldin badauka hobe. **cc 605 70 52 04**

• Neskatza bat autobusera eraman eta jasotzeko pertsona behar da. lir **943 74 29 54**

• Ostiral eta larunbatetan barran lan egiteko kamarero euskalduna behar da. a **943 74 31 17**

♦ Egun solteetan 2 ume zaindu edo etxeko lanak egiteko emakumea behar da. s. **943 74 18 46 (20:00etatik aurrera)**

♦ Estetizista behar da Elgoibarren. 13. **943 74 43 03**

• Kamareroa behar da. **cr 943 74 42 65**

• Eguneroko menuak prestatzen jakituna behar da astelehenerdik larunbatera. 14 soldata. 17 **635 71 36 73**

## Etxebizitzak

♦ Etxebizitza salgai herri erdian. 3 logela, altzariekin, berritua. Bizitzera sartzeko moduan. a **661 42 60 77**

Pisua erosiko nuke donostian. Ez zait inporta obra egiteko baldin badauka. **lr 699 13 40 81 (Ainhoa)**

♦ Etxebizitza alokatzen da Santa Klaran. Amueblatuta, dena kanpora begira. **rt 617 68 93 48**

• Logela alokatzen da, sukalde erabilpena barne, San Roke auzoan. te **943 74 88 53**

• Etxebizitza salgai Urasandin. 3 logela, sala, sukaldea, 2 komun. v **943 74 18 18**

♦ Pisua alokatzen da Urasandin. **1T 66 1 79 04 52**

• Pisua hartuko nuke alokairuan. 11649 **10 01 85**

Pisua hartuko nuke alokairuan Elgoibar eta Durango artean. si **943 74 05 35**

♦ Etxebizitza salgai San Pedro kalean. 3 logela. Guztiz eraberritzeko. 6.500.000 pta. a **686 07 85 96**

• 90m<sup>2</sup>ko etxebizitza salgai Arregitorren. Guztiz berritua. 3 logela, 2 bainugela, sala eta sukaldea. Bi balkoi eta trasteroa. v **616 78 51 20 (16:00etatik aurrera)**

• Apartamentua alokatzen da Luz Ardiden eski dendoraldi osorako. **cr 615 75 02 86**

• Baserria edo txaleta erosiko nuke Mendaron. tr **615 74 50 72**

Pisua salgai Mendaron. Egongela, sukaldea, 2 logela, komuna eta balkoia. tr **606 86 10 07**

• Pisua salgai Urasandin, N<sup>o</sup>20-4.F. **\$c943741701**

## Garajeak

• Garaje itxia alokatzen da Ikastola ondoan. z. **943 74 28 24**

• Garaje itxia alokatzen da Madalan. **Tr 696 96 40 69**

## Partikularrak

• DBHko klase partikularrak ematen dira. v **943 74 16 88**

\*Ingeleseko eta euskarazko klase partikularrak emateko pertsona behar da. 1-2 pertsonentzako. DBH2 maila. tr **699 820 820**

41H4ko umeari klase partikularrak emateko pertsona arduratsua behar da. Astelehenerdik ostegunera. tr **626 23 75 70**

♦ Ingeleseko klase partikularrak ematen dira. Maila guztiak. Ingeles filologian lizentziatua. 10 urteko esperientzia. s. **943 74 31 67 (Nekane)**

## Salerosketak

+ Seat Ibiza GT TDI autoa salgai. 110 zaldi. 55.000 km. 99koa. ia **650 89 79 85**

Peugeot 205 diesel autoa salgai. 900 euro. Karneta atera berri duenarentzat aproposa. v **615 72 36 12/943 74 02 09**

♦ Tresiloa eta bi butaka salgai. Egoera onean, beriak, otsailean erositakoak. v **943 74 06 85**

♦ Kawasaki KLE 500 motorra salgai. Egoera onean. tr **605 70 52 04 (Edu)**

♦ Hyundai Accent 1325 autoa salgai. Hiru ate, irratia eta CDa, balazta argia duen spoilerrarekin. 7 urte, 110.000 km. Egoera oso ona. 3.000 euro. s- **943 74 44 46**

♦ Fagor berogailua salgai. Termostatoarekin, 2000 w. 40 euro. **cr 943 74 44 46**

♦ Scooter Daelin NSII 125cc. salgai. 8.000 km. tir **678 80 35 35 (Gerar)**

• Apaindegia traspatzen da Elgoibarren. **943 74 16 33 (20:00etatik aurrera)**

\*Seat Cordoba salgai. 110 zaldi, TDI. Llantekin. 98koa. a **669 17 95 59**

41 Ford Sierra 2000i salgai. SS-AH. Egoera onean. v **650 84 06 20**

♦ KTM 250 Exc salgai. 2002koa. Modelu amerikarra. Kaskoa opari. Merke. v **943 74 39 56**

♦ VW Golf 1.8 gl. salgai. 92.000 Km. SS-AN. 4.000 euro negoziagarriak. **620 44 71 28**

Opel Vectra DTI, 2.2 sport salgai. Txuria, 5 ate. 2002. urtekoa. Kapot elektrikoa, klimatizadorea, ordenadorea... urte beteko opel garantia. v **616 26 62 12**

♦ Audi A4 salgai. 97koa. TDI, 110CV. Zilar kolorekoa, beti garajea. **ss. 616266212**

## Bestelakoak

♦ Un-iaren 4an, larunbatean, Malape taberna norbaitek trajearen txaketa amerikarra konfundituta eraman zuen. Beste txaketa amerikarra nik daukat. **cr 943 74 28 93**

♦ Madalako etxe berrietan trasteroa alokatzen da. **cr 605 77 34 53 (20:30-22:30 bitartean deitu)**

• DBH1 eko ikasleek eskola kirolerako entrenatzailea behar dute. **619 12 74 74 (21: 00-22:00 bitartean deitu)**

Erlojua galdu nuen igerilekuan. Casio markakoa, beltza. v **943 74 32 56**

♦ Norbaitek katu nabar bat galdu badu IMHko sarrera eta inguruetan begira deza, hiru egun daramatza bertan bueltaka.



Elgoibarko Gazte Informazio Gunea  
Kultur Etxean. Bigarren solairuan.  
Tel. 943 741 461

Ordutegia:  
Asteartetik-ostiralera: 16:00-20:00

**OHARRA:**

Merkatu txikirako mezuak  
ekartzeko azken eguna  
asteazkena eguerdiko  
13:30a da.

## Agurrak

• Zorionak **amuma Nikasil**

Ondo pasau eguna, eta  
muxu haundi-haundi bat  
familiako guztien partez.



• Zorionak **Oier Arriolari, be-  
re 3.** urtebetetzean. Etxeko  
guztien partez.



• Zorionak **Nerea**, hilaren  
8an, 4 urte bete zituelako.  
Familiako guztien partez.



• Zorionak **Mikel Marco -  
i**, San Migel egunean 11  
urte bete zituelako. Fami-  
liako guztien partez.



• Zorionak **Pako**, zure biloba  
guztien partez.



\* Zorionak **Sara**, urriaren  
17an, 9 urte inguru ditu-  
zulako. Gurasoen, aitaitza  
eta Loliren partez.



• Zorionak **Irati Ajobita**,  
urriaren 9an, 11 urte egin  
zenituelako. Familiako  
guztien partez.



• Zorionak **Joanari**, igandean  
**12** urte beteko dituelako. Mu-  
xu handi bat gurasoen eta  
llasoren partez. Ondo-ondo  
pasa eguna aitaitza Jose Mari,  
Olu eta Titoren partez.




• Kaixo **potiololo!** Kandelatxo  
bat emendau zendun  
igandian, eh? Muxu haun-  
di bat Ikastolako laguntxo-  
en partez.



• Zorionak **Ainhoa**  
**Ayestari**, urriaren 7an, 11  
urte bete zituelako. Etxeko  
guztien partez.



• Zorionak **bikote!** Ze, urduri? Ba lasai, Gurutze  
Gorrikoak ez dira urruti egongo eta. Familiako  
eta bereziki, Joana, Asier eta Amaia partez.



\*Zorionak **bikote**, hilaren 12an eta 15ean urteak  
beteko dituzuelako. Familiako eta bere-  
ziki, Josebare partez.

**BEKAK****Ikerketa**

Espainiako Zientzia Ikerketen Kontseilu Nagusiak  
ikertzen hasteko 80 beka eskaintzen ditu edozein  
unibertsitateko fakultate eta eskola teknikoetako goi-  
mailako karrerako azken kurtsoko ikasleentzat. Beken  
zenbatekoa 2.187 eurokoa izango da. Epea: azaroak 3

**Boluntarioen prestakuntza**

Luis Vives Fundazioak beren prestakuntza hobetu  
nahi duten boluntario eta boluntarioen arduradunei  
zuzenduriko beken burtsa antolatuta du. Prestakuntza hori  
erakunde bakoitzari dagozkion beharrian jakinei  
egokituriko hezkuntza espezializatuan oinarrituko da.  
Epea: urriak 15

**IKASTAROAK****Enplegu bilaketa**

ASFAMOGI-k enplegua bilatzeko teknikei buruzko  
ikastaroak prestatu ditu, Donostian, langabetuei eta  
enplegu hobia lortu nahi duten pertsoneri zuzenduta. 1-2  
ordutako ikastaro monografikoak eta iraupen luzeagoko  
ikastaroak. Epea: plazak bete arte

**E.H.U.**

Euskal Herriko Unibertsitateak Espresioarena  
izeneko programaren barruan ikastaro ugari antolatu ditu  
Donostia eta Bilboko kanpusetan. Musika, zinema, yoga,  
malabarrak, antzerkia, euskal dantzak, argazkigintza,  
dantza garaikidea, zinema, etab. Epea: urriak 17

**Masajea**

Ermua eta Eibarko Gurutze Gorriko prestakuntza  
zentroak 30 orduko masaje ikastaroa antolatu du urriaren  
14tik azaroaren 13ra Ermuan. Ordutegia: 18:00-21:00  
astearte eta ostegunetan.

**LEMAKETAK****Ipuinak**

Azkoitiko Udalak XXII. Bizenta Mogel Ipuin  
Lehiaketa antolatu du 18 urtetik gorakoentzat. 4 eta 8 orri  
bitarteko euskarazko ipuinak aurkeztu beharko dira. 930  
euro saritan. Epea: urriak 31

**Pintura**

Montillako udalak IV. Garmelo pintura-saria antolatu  
du. Egile bakoitzak teknika eta gai libreko lan bakarra  
aurkez dezake. 6.000 euroko saria. Epea: urriak 22

**Laburmetraiak**

Madrilgo Unibertsitate Politeknikoak Filme  
Laburren VI. Lehiaketa antolatu du. Aurkeztutako lanek  
20 minutuko gehienezko iraupena izango dute, 2000ko  
urtarrilaz geroztik ekoiztutakoak, argitaratu gabeak eta  
VHS formatukoak izango dira. Bi modalitate: edozein  
unibertsitateko ikasleak eta adin guztietako egileak nahiz  
taldeak. 2.700 euro saritan. Epea: urriak 15

**LANA****Psikologia**

Nafarroako Osasunbidea osasun zerbitzurako  
Psikologo Kliniko lanpostua. Baldintzak: Psikologian  
Lizentziaduna eta Psikologia Klinikoan espezialista  
izatea. Epea: urriak 20

**Itzultzaileak**

Gasteizko udalak gizarte-zerbitzuak erabiltzen  
dituzten atzeritarrei atzertzen laguntzeko lan-poltsa  
osatzeko deialdi publikoa egin du. Baldintzak: gaztelania  
eta beste hizkuntzen bat idatziz zein ahoz menderatzea  
eta komunikatzeko iaioa izatea. Epea: urriak 31

## Farmazia - okindegia

EGUNEZ	GAUEZ
10 Bidasolo	Bidasolo
11 Etxeberria (Santa Ana kalean)	Etxeberria
12 Etxeberria (Santa Ana kalean)	Etxeberria
13 Fernandez	Fernandez
14 Yudego	Yudego
15 Zabaleta	Zabaleta
16 Etxeberria (Errosario kalean)	Etxeberria
17 Ibañez	Ibañez

### FARMAZIAK

ESCALA, Rekalde, 1 Soraluze.

Tel: 943 75 16 38

### FERNANDEZ,

Herriko enparantza 4, Garagarza.

Tel: 943 75 61 42

ZABALETA, Kalebarren, 9 Soraluze.

Tel: 943 75 13 84

### OKINDEGIA

12 igandea Izagirre

## 10 BARIXAKUA

19:00 VIII. KOKOE KOMIKI

### LEHIAKETA

Erakusketaren inaugurazioa  
Kultur Etxeko erakusketa gelan  
Antolatzailea: Kokoe Komiki  
Elkartea  
Urriaren 19ra arte

12:10 PILARREKO

AMABIRJINAREN ALDEKO

### MEZA

Pilar Ikastetxeko gimnasioan

13:00 GURASO BATZORDEAK

### PRESTATUTAKO

JANAURREKOA

Pilar Ikastetxean

12:30 UDAL MUSIKA

BANDAREN KONTZERTUA

Herriko Antzokian

## 11 ZAPATUA

22:30 "DISKO FESTA"

Joseina Etxeberriarekin  
Madalako parkean

## 17 BARIXAKUA

20:30 eta 22:15 ANTZERKIA

"Kutsidazu bidea, Ixabel" (euskaraz)

Taldea: Gorringo Antzerki Taldea

18:00 HITZALDIA

Gaia: Bizi testamentua

Hizlaria: Sara Ibarbia

Jubilatuen Biltokian

## 12 DOMEKIA

12:00 SAN PEDRORA

TXIRRINDULARI IGOERA

Irteera: Plaza Handian  
Antolatzailea: Elgoibarko Lagun  
Taldea

## OSPAKIZUNAK

Pilar-eko Amabirjinaren Eguna

Urtero legez, Pilar-eko Amabirjinaren Eguna ospatuko du Pilar Ikastetxeak datorren domekan, urriaren 12an. Eguerdiko 12:00etan ikastetxeko gimnasioan ospatuko den mezarekin hasiko dira ospakizunak. Ondoren, 13:00etan Guraso Batzordeak prestatutako janaurrekoa dastatu ahal izango da. Bestalde, urriaren 21ean, martitzenean, Biator Donearen Eguna ospatuko dute. Goizeko 10:00etatik aurrera hainbat kirol eta jokotako finalak izango dira, besteak beste.

## KONTERTUAK

Udal Musika Banda

Elgoibarko Udal Musika Bandak kontzertua eskainiko du domeka honetan, urriaren 12an, Herriko Antzokian. Jose Antonio Osororen zuzendaritzapean honako pieza hauek joko dituzte: "Lorenzin Mendoza" (P.Marquina), "Pique Dame" (F Von SuppO), "Canon" (J. Pachelbel), "Gigantes y Cabezudos" (M.F. Caballero), "We are the Champions" (F. Mercury), "Cordillera de los Andes" (Malando-Vlak). Saioa eguerdiko 12:30ean hasiko da.

Rock Kontzertua Mendaron

Mendaroko Udalak antolatuta, rock kontzertua entzuteko eta ikusteko aukera izango da zapatu honetan, urriaren 11n, Mendaroko Herriko Enparantzan. "LurGor" taldeak egingo ditu telonero lanak, baina "Sorkun" izango da gaueko izarra. Gaueko 23:30ean hasiko da ikuskizuna eta dohainik izango da.

## TAILIERRAK

Piraten Jaialdia

Atxutxiamaika Aisialdi Taldeak Piraten Jaialdia antolatu du. 3 eta 5 urte bitarteko Haur Hezkuntzako haurrei zuzendutako tailerrak dira eta urriaren 18an, zapatuan, egingo dira. Arratsaldeko 16:00etatik 19:00etara egongo dira tailerrok Plaza Handian eta dohainik izango dira.



**0440,11,4**

Olaso industrialdea. Olasope, 66-A

Tel.-Faxa: 943 74 42 54 - 20870 ELGOIBAR

**MEKANIZATUEN TAILERRA**

""111111W111111111111  
" Saiento

**Salento Pizzeria eta taberna**

**SanFrantzisko kalea, 48**

**Tel.: 943 74 01 96**



## LEHIAKETAK

### "Elgoibar Herria" kartel lehiaketa

Inazio Bereziartua Musika Eskolak 2004ko "Elgoibar Herria" Instrumentu Taldeen III. Lehiaketarako kartela aukeratzeko lehiaketarako deialdia egin du. Lehiaketako oinarri eta araudiari dagokionez, norberak nahi duen teknika erabili ahal izango da eta ez da adin mugarik izango. Kartelean honako testua agertu beharko da nahitaez: Instrumentu Taldeen III Lehiaketa "Elgoibar Herria" III Concurso Conjunto Instrumental. Martxoak 27/28 2004 27/28 marzo. Sari bakarra izango da: 300 euro irabazlearentzat. Originalak helbide honetara bidali beharko dira: Inazio Bereziartua Musika Eskola (Aita Agirre Plaza 4, 20870 Elgoibar). Lanak entregatzeko azken eguna 2003ko azaroaren 6a izango da. Argibide edo oinarriari buruzko zerbait gehiago jakin nahi izanez gero 943 74 21 45 telefonora deitu.

## HITZALDIAK

### Bizi -testamentua

Jubilatuaren Biltokiak Bizi-Testamentua gaitzat duen hitzaldia antolatu du urriaren 17an, barixakuan. Sara Ibarbia izango da hizlaria eta bizi-testamentuaren inguruan Euskal Autonomi Erkidegoan indarrean dagoen araudiaren hainbat alderdi emango ditu ezagutzera: arau orokorrak, bizi testamentuaren edukia, eutanasia aktiboa eta pasiboa, heriotza duina, tratamendu etetea, iritzi etikoak, nork egin dezakeen, beste herrialdeetako arauak eta bizi-testamentu baten erdua, besteak beste. Hitzaldia arratsaldeko 18:00etan hasiko da Jubilatuen Biltokian bertan.

## IKASKETAK

### Ikasturte hasiera

Txandakako Enpresa Ingeniaritzako lehenengo eta bigarren kurtsoko ikasleek urriaren 13an, astelehenean, emango diote hasiera 2003-2004 ikasturteari, IMHko Areto Nagusian. Enpresa munduko gonbidatu batek hartuko du parte hasiera ekitaldian eta hitzaldia eskainiko die ikasleei. Saioa 15:00etan hasiko da.

## KINTOAK

### 42ko kintoak

1942. urtean jaiotako elgoibartarrek urriaren 25ean, zapatuan, ospatuko dute kinto bazkaria Sigma jatetxean. Joan nahi dutenek 30 euro sartu beharko dituzte urriaren 18a baino lehen, honako kontu zenbakian: 3035 0007 2 5 0071029319 (Euskadiko Kutxa).

### 70ean jaiotakoen afaria

1970. urtean jaio eta Ikastolan ikasi zutenek urriaren 18an, zapatuan, afaria egiteko asmoa dute. Hau dela eta, izena eman nahi dutenak pasa daitezela Txariduna jatetxetik.

## BATZARRAK

### Morkaikoren urteko batzarra

Urteko Batzar Orokorra ospatuko du Morkaiko Mendizale Elkartek urriaren 16an, eguenean, Kultur Etxean. 19:15ean lehen konbokatoria eta 19:30ean bigarrena. Elkartearen inguruko gai nagusiak azalduko ditu egungo zuzendaritzak: urteko irteera eta eginkizunen balorazioa, lokalean eta ekipamenduetan egindako inbertsioak, aurrerako asmoak, balantze ekonomikoa, zuzendaritzaren dimisioa eta zuzendaritza berriaren eskaera eta galderak eta eskaerak, azkenik.

# zine

## KARTELDEGIA

11111 41.11

### ELGOIBAR, Herriko Antzokian

#### "Se monto la gorda"

10, barixakua: 22:15

11, zapatua: 19:30-22:15

12, domekia: 19:30-22:15

13, astelehena: 22:15

#### "Canguro Jack trinca y brinca"

12, eguena: 16:30

### EIBAR, Unzaga

"D es"

10, barixakua: 19:30-22:15

11, zapatua: 17:00-19:30-22:30

12, domekia: 17:00-19:30-22:30

13, astelehena: 19:30-22:15

14, martitza: 19:30-22:15

15, eguaztena: 19:30-22:15

#### "Doraemon"

11, zapatua: 17:00

12, domekia: 17:00

#### "La pelota"

10, barixakua: 19:30-22:15

11, zapatua: 17:00-19:30-22:15

12, domekia: 17:00-19:30-22:15

13, astelehena: 19:30-22:15

14, martitza: 19:30

15, eguaztena: 19:30

BARRENez ez du gena litezkeen emanaldien aidaketen erantzukizunik.



## "Se monto la gorda"

Zuzendaria: Adam Shankman.

Antzezleak: Steve Martin, Queen Latifah, Eugene Levy.

Peter Sanderson (Steve Martin) dibortziaturik dagoen abokatua da. Emazteak utzi izanak sorrarazi dion depresioa gainditzeko interneten pasatzen ditu orduak eta orduak. Halako batean bere neurrira egin dirudien neska gaztea ezagutuko du "chat" batean. Neskak abokatua dela esango dio, baina gezurretan ari da, kartzelatik ihes egin berri baitu. Bere errugabetasuna frogatuko duen abokatu bat behar du neskak eta hortik datorkio Peter ezagutu eta engainatzeko beharra.

# N

# 11



# A

ste honetako erretratu zaharra Elgoibarko ehiztari batek laga digu. 1954. urteko urriaren 12an, Burgoseko Cubillo del Campo herrian ateratako argazkia da. Ehiza denboraldia orain gutxi hasi denez, egokia iruditu zaigu argazki hau argitaratzea. Argazkian agertzen diren mutil gazte hauek sarritan joaten ziren ehizara, eta egun honetan 32 eper eta 9 erbi ehizatu zituzten. Ez dago batere gaizki!

Gogora ditzagun zein diren argazkian azaltzen direnak.

Ezkerretik eskumara, zutik: Abdon Gabilondo (t), Tomas Elizburu (t), Alberto Ortueta (t), Anastasio Arrillaga, Leon Etxeberria (t) (Munitibarkoa), Marciano (Cubillokoa).

Makurtuta: Basilio Etxaniz (Arostegi) (t), Jose Osoro (Katxo) (t) eta Perla txakurra.




## URTEURRENA

2000ko urriaren 17an, 77 urte zituela hil zen  
**BASILIO IGARTUA ARIZMENDI**ren oroimenez  
**URTEURRENEKO MEZA** izango da Parrokian  
ostiralean, hilak 17, arratsaldeko 19:00etan.  
Joango zaretanoi eskerrak alde zurretik.




## I. URTEURRENA

2002ko urriaren 12an, 75 urte zituela hil zen  
**CRISPULO ALCALDE BASTERRECHE**aren oroimenez  
**I. URTEURRENEKO MEZA** izango da Mendaroko  
Azpilgoeta elizan, igandean, hilak 12, goizeko 11:00etan.  
Joango zaretanoi eskerrak alde zurretik.





 euskadigaztea

91

**DISKCOFESTA**

nirvn rriarTn  
ulDnu rLD

**Urriaren 11n**

**223Cletan**

**Madalako parkean**



Euskara

Saila



Gipuzkoako

Foru Aldundia



Eusko

Jaurlaritza



**ingurumena**  
*Zure esku dago*

**INGURUMENA ZAINDUZ ETXEKO GASTUAK  
GUTXITU NAHI DITUZU?**

Eman  
ezazu izena,  
**DOAN,**  
GAP Programan



GAP (Ekintza Plan Globala)  
programan parte hartzen  
duten etxeek %20 aurreztu  
dezakete urteko gastuetan  
eta eskuratu ahal dute  
etxea ekologikoa dela  
agiazatzen duen Nazio  
Batuen ziurtagiria



(Debabarrenako etxetarako)  
Ondorengo datuak gure zuzenbidearekin sartu, gure jarduera eta ingurumenaren aldeko ekintza berrak.  
GAP-EUSKADI: 308 posta-kutxa -kutxa, 48000 Bilbo

Izena - abizenak: .....

Helbidea: .....

Posta-kodea: .....

Herria: .....

Tfn: .....

Horien berriak izateko jarraitu gure webgunean eta LORTAD legea betetzeko erabiltzen diren



Debegesa  
943 82 01 10



[www.ingurumena.net/gap](http://www.ingurumena.net/gap)

ingurumena zure esku dago

un país sin marcha

EUSKO JAURLARITZA

GOBIERNO VASCO



Gipuzkoako Foru Aldundia  
Diputatuaren Forat de Gipuzkoa

Departamentuaren Departamentuaren  
Departamentuaren Departamentuaren





# Kutsidazu bidea Ixabel

Urriak 17, ostirala  
20:30etan eta  
22:15ean  
Herriko Antzokian



*Euskaraz*

*Euskaraz*



# Inaxitoren ametsak

Urriak 19, igandea  
16:30etan  
Herriko Antzokian  
6-12 urte bitartekoentzat

**trikuharri taldea**

